Sariak

Talde irabazleak bideokamera digital bat jasoko du.

Bigarren eta hirugarren postuan sailkatzen diren taldeek argazki-kamera digital bana jasoko dute.

Kolaboratzaileak:

EROSKI

Elhuyar Fundazioa
Zelai Haundi 3,
Osinalde Industrialdea
20170 Usurbil. Gipuzkoa
tel.: 943 36 30 40

Innobasque
Laida bidea, 214 eraikina
48170 Zamudio
tel.: 944209488

theWeek Astea la Semana 8
Science Technology Innovation

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Astea

2008

Antolatzaileak:

ELHUYAR fundazioa

innobasque berrikuntzaren euskal agentzia agencia vasca de la innovación

ELHUYAR fundazioa

innobasque berrikuntzaren euskal agentzia agencia vasca de la innovación

TEKNOSKOPIOA
lehiaketa

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Astea

2008

Elhuyar Fundazioak eta Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziak gonbita luzatzen die gaztetxoei Teknoskopioa lehiaketan parte har dezaten, aurtengo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Astearen baitan. Lehengaia: talentua eta Lur planeta da aurtengo gaia.

Biziaren etorkizuna eta planetarena elkarren mende daude neurri handi batean. Mehatxuak askotarikoak dira, eta nahiz eta pixkanaka neurri batzuk hartzen ari garen, Lurrak eskertuko luke superheroiren baten laguntza.

Horixe da, hain zuzen ere, aurtengo Teknoskopioa lehiaketako partaideei proposatzen diegun erronka. Mundua salbatuko duen superheroi baten azalean jarri beharko dute, eta superheroi horren bloga sortu: superbloga.

lehiaketa

TEKNOSKOPIOA

Nork har dezake parte?

Hamalau urtetik hemezortzira bitarteko neskamutilek har dezakete parte Teknoskopioan, hau da, DBHko 2. zikloko eta batxilergoko ikasleek, baita LHko ziklo ertaineko ikasketak egiten ari direnek ere.

Banaka edo taldeka har daiteke parte lehiaketan (gehienez ere hiru lagun blog bakoitzeko).

Zer aurkeztu behar da?

Blog bat. Superheroi baten bloga sortu behar dute parte-hartzaileek. Superblog horretan, superheroiak bere burua aurkeztuko du lehenik: izena, bere historia laburra, superbotereak, zer ekipamendu daraman, zer mehatxuri aurre egiten dion, eta, noski, baita bere "kriptonitak" edo gune ahulak zein diren ere. Bloga osatzen hasten denean, mundua salbatzeko bizi izan dituen ekintzak eta abenturak kontatuko dizkigu superheroiak. Gutxienik hiru ideia landu behar dira superblogean, eta horietako bakoitzean azaldu beharko da nola egin dion aurre superheroiak halako egoera edo mehatxuri, eta zer ideia otu zaizkion arazoak konpontzeko.

Garrantzitsua da, orobat, jarraitzaileak lortzea eta haien iruzkinak jasotzea eta erantzutea. Eta, bide batez, superheroiak frogatzen badu jarraitzaileei hausnarrarazteko superboterea duela, askoz hobeto!

Antolatzaileek Lurreko biziari buruzko informazio lagungarria prestatu dute. Hor ikusiko dute superheroiek, besteak beste, zein diren egungo mehatxu nagusiak, eta baita zientzialariek mundua salbatzeko proposatzen dituzten hainbat ideia bitxi ere. Pista baliotsuak izan litezke. Hortik aurrerakoa superheroien esku dago. Misioa argia da: mundua salbatzea!

Sariak emateko irizpideak

1. Edukia behar bezala prestatuta egotea.
2. Blogaren egokitasuna eta originaltasuna.
3. Arazoak konpontzeko proposatutako ideien balioa.
4. Erabilitako baliabideen aberastasuna eta edukiak zenbateraino landu diren.
5. Blogak eragin duen parte-hartzea.

Epaimahaia

Epaimahaia hainbat pertsonak osatuko dute, besteak beste, ingurumen- eta gizarte-gaietako zenbait adituk eta Innobasqueko, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko eta Elhuyar Fundazioko ordezkariek. 2008ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Astean, 2008ko azaroaren 10etik 16ra bitartean, jakinaraziko da zein diren sarituak.

Epeak

Lehiaketa urriaren 31n amaituko da. Diptiko hau jasotzen den unetik urriaren 31 arteko epea dago bloga sortu eta iritziak jasotzeko. Hortik aurrera blogak izan ditzakeen bisitak ez dira kontuan hartuko.

*

Oinarriak, informazioa eta aurreko urteetako lanak www.zientzia.net/teknoskopioa.asp helbidean.
Harremanetarako: teknoskopioa@elhuyar.com edo 943 36 30 40.